

3- Segmentazioa:

“SmartBin” produktua merkatu masibo bati bideratuta dago. Merkatu mota honetan, bezeroek, balorezko proposamenek eta banaketa kanalek talde handi bat osatzen dute. Izan ere, zakarrontziak kale askotatik zehar jarrita egongo dira, eta herri edo hiri horren edozein biztanlek erabili ahalko du. Gure produktuak edozeinek izan ditzaken momentuko hondakinak modu ekologiko batean birziklatzea ahalbidetzen du. Hortaz, edozein zabor momentuan bota nahi duen edozeinentzat dago bideratuta. Produktu hau hiri edota herrien garbiketaz arduratzen diren enpresentzat edo talde ekologisten proiektu gisa egon daitezke.

Gure zakarrontzi berri hau egongo den herrien edo hirien udaletxeek, hiri handietako erdialdeetan batez ere, zakarrontzi hauek behar diren tokietan jartzeaz arduratu beharko lirateke, erabilera egokia eman dezan (distantzia jakin batera zakarrontzi bakoitza jarri, zakarrontzien mantenimenduaz...). Honi esker, dena behar bezala izanez gero, hiri eta herri garbiago bat izango genuke, zakarrontziak kuriositatea piztu egingo lukeelako hiritarren artean, eta aldi berean udalerriko birziklapena nabari hobetuko litzateke denborarekin.

Honetaz gain, talde ekologista eta enpresa desberdinei bideratuta egongo da, lehen aipatu bezala. Enpresa hauek zakarrontzien piezak eraikitzeaz edota garbiketaz arduratzen direnak izango dira, non gure produktua aurkezteko aukera izango dugun. Gainera, talde ekologista askorekin parte hartzeko aukera izango genuke, gure proiektu berriak azkarrago eta hobeto zabaltzeko, SmartBin-ak dituen onura guztiak ezagunak egin daitezten produktuarekin batera.